

## ‘Lurraldea eta Hizkuntza’ jardunaldiak 16an eta 17an

Lurralde antolaketak, hazkunde urbanistikoak esate batera, hiztun komunitateetan eragiten du, hizkuntza aldaketak sorraraz ditzake. *Lurraldea & Hizkuntza* jardunaldietan kontzeptu hori bereziki arnasmuneetan nola garatzen den landuko dute.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, UEMak eta Kontseiluak antolatutako Donostian urtariraren 16an eta 17an egingo diren jardunaldiak. UEU izango dute bidelagun bi egun horietan. Aipatu lehen hiru erakundeek *ELE / Arnasmuneak hedatuz* proiektua abian jarria dute eta berau gizarteratzeko antolatutako jardunaldiak.

Bi eguneko saioek hiru helburu dituzte: batetik, geografia eta hizkuntza-ren arteko harreman estuaz hausnartzea; bigarrenik, lurralde antolaketak eta hirigintzak euskararen hiztun komunitatearengan duen eragin zuzenaz ohartaraztea; hirugarrenik, eragin hori kontuan har dadin hartu beharreko neurriez hausnartzea, kalteak murrizteko eta onurak indartzeko.

Euskal Herriaz kanpoko arnasmuneetako (hizkuntza gutxiagotua nagusi den gune geografiko edo soziofuntzionalak dira) esperientziak entzun ahal izango dira Donostian, baita herri euskaldunen bizipenak eta beharrak mahai gainean jarri ere.

*ELE / Arnasmuneak hedatuz* sortu aurretik Kontseiluko hainbat bazkide ari ziren alor hori jorratzen. Bertsozale Elkarteak, Emun, Euskal Herriaren Euskaraz, Topagunea eta UEMak lan-taldea osatua zuten. Haiek, egindako gogoetatik ondorioztatu zuten arnasmuneek duten garrantziaz jabetu behar dutela eragileek eta gizarteak. Arnasmuneen garrantziaz gain, euskararentzat gune berriak irabazteko jendarte aktibatzea proposatu du lan-taldeak.



## Diru-bilketa deialdia Iruñerriko Mintzakideek

TOPAGUNEAK kudeatzen duen Mintzakide egitasmoa kanpaina egiten ari da dirua biltzeko. Proiektuak tamaina handia hartu du eta kudeaketa gero eta zailagoa da. Topaguneak 2004an mintzapraktika programa abian jarri zuenean 80 boluntariok hartu zuten parte. Gaur egun 600 mintzakidetik gora aritzen dira Iruñerrian. Mintzapraktikan parte hartzen dutenak boluntario dira, eta kudeaketaz arduratzen direnak aldiz, profesionalak. Sarea zabaltzeko, eta berau koordinatzeko, elikatzeko eta gehiago handitzeko baliabide ekonomikoak emendatzea beharrezkoa dela dio Topaguneak. Diru bilketa abenduan hasi zuten, eta urtariraren 20 arte iraungo du. Gutxienez 5.000 euro bildu nahi dituzte eta 2.000 euro inguruan dabilta. Ekarpenaren arabera, hainbat sari ari dira banatzen laguntzaileen artean. *Zu gabe ezin* kanpainaz informazio gehiago helbide honetan: <http://ttiki.com/59188>

## EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

### 2014a hobia izango da... beraientzat

GOBERNUEK, finantza erakundeek eta patronalek, euren esklaboei indarra emateko edo, diote 2014a hobia izango dela. Tunelaren bestaldean argia ikusten dela esaten dute eta krisia jada gaindituta dagoela; enplegua ere sortuko dela diote. Baina Euskal Herrian 200.000 langabetu daude, gazteek ez dute lanik aurkitzen eta euren proiektuak aurrera ezin eramanik dabilta. 2014a hobia izango dela diote, eta edozein ekonomialarik edo analistak daki enplegua sortzeko BPGaren %2 hazi beharra dagoela. Eta oso urrun dugu zifra hori. Langabezia denbora luzez gure artean egoteko etorri da. Kapitalismoak beraz, lan prekarietatea aprobetxatzen, pertsona erreserba handia izango baitu, desesperazioaren infernutik ateratzeko mugikortasun geografiko eta funtzionalerako prest dagoena.

2014a hobia izango dela diote, soldatak jaisten ari diren arren, gutxieneko soldata 645 eurotan izoztu duten arren, prezioak igo diren arren... Gizon eta emakumeen arteko desberdintasuna handituz doa eta pentsionistek erosteko ahalmena galdu dute. 2014a

hobia izango omen da, kapitalismoak sorturiko krisiak oinarritzeko eskubide sozial eta laboralak txikitu dituen honetan. 2014a hobia... Baina denok pobreago, ezberdinoago, koldarrago eta otzanago gara; borrokarako grina ere itzali zaigu, elkartasunik ez dugu eta "salba dadila ahal duena" pentsatzen dugu.

Kapitalismoaren kudeatzaileek eta euskal patronalak, jada prest dute 2014a igaro eta krisiak hor segitzen duela ohartzen garenerako erantzuna. 2014an krisia gainditzen ez bada, langabezia maila jasanezinetan mantentzen bada, pobreziak eta bazterketa sozialak handitzen segitzen badute, errua langileena, sindikatue-na eta mugimendu sozialena izango da, euren eskubideak defendatzeagatik lan gatazkak eragin dituztelako. 2015a iritsi baino apur bat lehenago kapitalisten lelo bera entzungo dugu: 2015a hobia izango da... beraientzat, beti bezala! Uste dute langile klasea inozoa dela.

Juan Mari Arregi

